

Kontrabandistek guardekin izan istorio batzu

E.: eta zoin, bon, hok, alemanak makur zuzketxun, bana mugaz bestalde ziren guarda zibil horiek ere ez zuzketxun hobe, eh!

M.: ah, hek tiatzen zuten, eh, rekto, eh!

E.: ah ba, eh?

M.: han kotraandistak lanjerrian zien, eh! Hemen guardek ez zuten tiatzen, haltoa emaiten zauzuten ta geo tiatzen zuten airerat, fiteo eskapa zinten.

E.: emengoek.

M.: guardek ez zuten dretxoik ez baziren biurtzen tiratzeko, zuri, bana karabineroek tiratzen zuten, eh! Delako Xidro hori eta bere herriko seme batek haltoa eman zakon nunbait, ezautu zien nor zen. Hua bano fitio arribatu zen hain etxerat, eta igurikatu zien, ba, etxeari hurbil, eta bortain idekitzen ai zelaik, dabra tiatu zakon gioletik, pasatu zien aldian beste, erran nai baita, Xidro kolpatia izan da alemanek eta kolpatia bere herriko karabinero semiak, a ba.

E.: eta hala ere bizi duxu, bizi izan duxu?

M.: bizi izan da ba, ta gibela pasatia zien aldian beste delako karabineroak tiratziakin, eta ez zien joan nai han medikurat, segidan bear zien bala ukana ziela.. Preso sartuko zuten, ez zen jostetaik, eh, han, ta geo ja jin zen, baitzities jendakiak hemen Ezentzuin gaindi, Ibañezak badira, Ibañez anitz, Ezentzuin ta familia ortaik, hedatiak, eta jin zen eta horiek ekarri zuten Donianeat, eta Donianen Rousset zarrak bazien bere radiografia ttipia ordukotz, ta harek frageatzen du ta harek zakon erran: “ba, hire giela aldian beste pasatia uk”, bana Xidrok bazien anea at eta armadan infirmier zen, ta harek atea zen tokitik eta sartzen tokia zoañatzen zazkon teinture diode eta holako atzuekin, hala zen salbatia, na hemengoak eman zazkon erremedioak eta gizona artan sendatu zen, na luzaz, eh, ez zen lanian ta artzen al, beti kartzen zakon, omen.

E.: berdin luzaz biziko zuxun?

M.: eh?

E.: berdin luzaz biziko zela gero.

M.: ah ba, ez zen ortako kontraandatik gelditu.

E.: ez, eh? Zoin ardit ziren! Jendiak, eh!

M.: gisa artakoa zen gizona, eh, buh.

E.: jeusen lotsa ez zuxun.

M.: eta gero, harek kundatu zien, eh! Ondoko udan aleman aek joan zien eta karabineroen juntuak in zuzten, karabineroek gomiatu zuzten jaterat Xidro haren etxerat, ostatia iten baitzien arek, ta bixtan dena, sartu zien han karabinero ekin, beren armekin ta guziekin Españan, bah, ez zen barna, eh, bana baltsain burian zen, eta han jan, eta oono ua, gizona kolpatia zen, eta zer zien galdin zakoten, karabineroek bazakiten ixtorioa ordukotz, Frantzian gertatia baitzen, ta ba, eta ziek kolpatia uk au, hola ta ola, eta aleman hetaik bazen batto justuki Iraun egona, kusten duzu nola gertatu zen? (irriak).

E.: gero han denak adixkide ta lagun!

M.: ain etxean, ba, “deubrien urdia bea zazue!”

E.: ze ixtorioak, eh!

M.: oui, oui.

E.: ze ixtorioak.

M.: voilà!

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala